# Zurriolako Ataria

61. alea 2019-05-17

## 19-20 ikasturteko LH antolakuntza




Apirilaren 3an Batzar informatibo bat egin genuen 19-20 ikasturterako aurreikusitako antolakuntza azaltzeko. Hemen duzue azaldutako aurkezpena, baita gaztelaniazko bertsioa ere. Orduan azaldutakoarekin konparatuta, aurreikusitako aldaketa esanguratsuena Hurrako jangela-txanden banaketa da.

## Haur Hezkuntza proiektuaz Hurran




Lehengo astean Zigor Ibarzabal Ikastolen Elkarteko zuzendari pedagogikoak EHIko marko pedagogiko orokorraz aritu zitzaigun. Datorren asteartean, **maiatzak 21**, Beñat Azurmendi EHIko prestakuntza arduraduna Haur Hezkuntzako etapaz arituko da eta (h)IZAN proiektuaren berri emango digu HURRAko Areto Nagusian 17:30ean egingo den hitzaldian. Aforoa eta azpiegiturak antolatu ahal izateko, faborez, bete inprimaki hau.

## Ikastola inguruak miatzen



Eguraldi eguzkitsu eta goxoa probextuz 2 urteko taldeak ikastola inguruko hainbat txokotara joateko aprobetxatu dute. Uliako Lore-baratzetara, ikastola ondoko parkera... Ederki pasa dute jolasean!

## Terrakotazko gerlarien erakusketan LH3



Gaur zortzi, maiatzaren 10ean, LH3ko ikasleak Txanelako Txina gaia landu zuten. Aukera ezin hobea izan zen Pasaiara joan eta Terrakotazko gerlarien aurkikuntzarekin lotutako erakusketa ikustera joateko.

## Altxorraren bila



Aurreko larubatean, HH5eko guraso talde batek antolatuta, Uliako Lore Baratzetan "Altxorraren bila" aritu ziren gure txikiak. Lore baratzetako txoko desberdinetan hainbat froga egin behar izan zituzten; abestu, dantzatu, Argitxok utzitako piezak aurkitu, lokotxetan aritu...

## Zurrimendi - Uliari bira




Ikastolaren 50. urteurrena dela eta, Zurrimendizaleek ere ospakizun honetan parte hartuko dute. Kilometroak 2009 jaiaren ospakizun barruan ikastolaren ekimenez homologatutako bidea egingo dute. Bertan, Aranzadiko hainbat adituk azalpenak emango dituzte. Animatu zaitezte!

## Zurriola DBHko Praktika Onen II. jardunaldian



Apirilean batxilergoko praktika onen jardunaldietan Zurriolako esperientzia azaldu eta gero, asteazken honetan gure DBH4ko arlo arteko proiektua erakutsi zuten Orona Auditoriumean Gurutze del Amak, Amaia Elortzak eta Iñigo Gastesik.









Zurriola Musika eta Dantza Eskolaren 2019/20 ikasturterako eskaintzak







## OHARRAK / AGENDA:

- **HH eta LH:** Guraso bilera orokorrak. Datak, orduak eta lekuen zehaztapena.
- **HH:** Sarrera irteeretan aldaketak. Zirkularra.
- **HH5:** Aieteko Katxola sagardotegira irteera. Egun pasa. Maiatzak 22. 9:00etarako etorri. Zirkularra.
- **LH1:** Baserria Barria. Maiatzak 22-24. Zirkularra.
- **LH1-2:** Emanaldia musikako irakasleen aldetik. Goizez. Maiatzak 20.
- **LH2:** Baserria Arantza. Maiatzak 22-24. Zirkularra.
- **LH4:** Etapa erdiko Ebaluazio Diagnostikoa. Maiatzan. Triptikoa.
- **LH5-6:** FIE ingeleseko murgilketa programa. Ekainak 10-20. Zirkularra.
- **LH6:** Papiloma txertoa. 2. dosia. Goizez. Maiatzak 22.
- **BATXILERGOA:** Gurasoentzat egutegia. Batx1. Batx2.
- **Zurriola Antzerki Eskola:** Ikasleen emanaldiak. DBH4ko ikasleen emanaldia. Ederra eta piztia. Maiatzak 22, 12:00.
- **Zurriola Musika Eskola:** Udaberri musikatua. Programazioa.
- **Eskola Kirola:** 23. jardunaldia. A eta B.
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** Maiatzak 17-19.
- **Parketarrak:** Egunik onenak elkarrekin jolasean.




**ZURRIOLA IKASTOLA IKE**
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587